



Hauteskundeak baino gehiago

PSOE eta Podemosen arteko akordioa gorabehera, berriro bozkatzera eraman nahi izan gaituzte gobernuaren osaketa alderdi independentisten esku zegoelako. Ez gaituzten engaina, Espainiako egoera ez da gobernu osatu ezinean sortutako blokeo politikoa, ez hori bakarrik bederen: estatu egitura dago krisian. Horri erreparatuta aztertu behar dugu hauteskundeen ondorena.

Alderdi abertzaleek lortutakoa ez da makala, are gehiago estatuko foko mediatikotik at egonda. EH Bilduko Bel Pozuetaren ahotsa kongresura iristea ere aparteko aipamena merezi duen aldaketa da. Alta, emaitzak oso onak izan badira ere, egoera bere osotasunean behatuta badaude alarma guztiak pizteko arrazoiak. Kataluniako prozesu subiranistak frankismoaren osteko bigarren estatu erreformaren atarian jarri gaitu, eta Espainiako alderdi nagusiak horretarako agertokia prestatzen ari dira. Hautestontziek ere horren zantzuak ematen dizkigute.

Batetik, Espainiako Estatu ereduari eusteko nahitaetzko gonbidatua da VOX. Lan zikina egitera etorri da. Lortutako emaitzak kezkarriak izanagatik, ez dezagun ahaztu muturreko eskuina ez dela gonbidatu berria Espainian. Hor egon da azken berrogei urteetan, katamalo demokratikodun alderdien baitan. Aldaketa dakarrena da hori esplizitatu egin dela eta VOXek inolako erreparatu gabe azal-

Gobernua osatu ezina baino arazo sakonagoa du Estatuak, eta blokeo egoera aitzakia eta aukera paregabea da aspaldi egin nahiko lituzketen doiketak egiteko, 78an lotu ezin izan zituztenak

tzen dituela proposamen autoritario eta atzerakoiak: Espainiaren batasuna eta espainiar arraza supremazista guztia- ren gainetik. Alabaina, oinarri horiek berroiek dira beste alderdiek ere muinean dituztenak. Hori garbi ikusten da VOXen zuriketan eta bere aldarrikapenei aurre egiteko duten ezintasunean. Eta are garbiago Euskal Herria edo Kataluniarekin duten jokamoldean. Eskuak burura darमतzagu alderdi independentisten ilegalizazioa haizatu dutelako, PP eta PSOEn gidaritzapean jada gurean behin eta berriro ilegalizatu ez balira bezala. VOXen muturreko posizioek lan diskurtsibo eta ideologikoa egiten diote Espainia orain arte gidatu duen bikoari.

Bestetik, autonomien estatuaren porrotak bere isla du alderdi erregionalista, subiranista eta independentisten goraka-



ESTITXU GARAI ARTETXE
EHU-KO IRAKASLEA

dan. Eta Espainiako gobernagarritasuna alderdi independentisten esku egotea Madrilgo metropoliko talaiatik oso deserosoa da. Are, onartezina. Hauteskunde deialdia ezin dugu bestela ulertu.

Hori horrela, berriro ikusiko ditugu ezkerreko gobernu bat osatzeko elkarrizketak, eta bere bidea egin dezaketan arren oso litekeena da hurrengo hilabetetan Espainiako Estatuaren lemazain diren alderdi handi bien arteko konponketak indarra hartzea, betiko presio-iturriek bultzatzea PP eta PSOEk elkar hartu dezaten. Gobernua osatu ezina baino arazo sakonagoa du Estatuak, eta blokeo egoera aitzakia eta aukera paregabea da aspaldi egin nahiko lituzketen doiketak egiteko, 78an lotu ezin izan zituztenak. Hauteskunde-legea aldatzea da horietako bat, lurraldeetako alderdi txikien ordezkaritza gutxituz. Halaber, nazio gabeko estatuen eskumuturrak estutu eta barrroteak loditzeko neurriak ere agendako lehenengo puntua izango lirakeke.

Hurrengo hilabetetako mugimenduetan ezin dugu ardatz hori begi bistatik galdu. Nahiz eta une honetan egoera frustazio-iturri izan, ukaezina da Kataluniak Espainia zartatu duela. Mugimendu horrek aldaketa ekarriko du, eta aldaketa hori negua baino ilunagoa ez izateko Euskal Herritik datorren presioa ere ezinbestekoa izango da. Zenbait adierazpen entzunda badirudi EAJ ere horretaz jabetzen hasi dela. ●